



TXIRRITXOLA

7. ZENBAKIA 1993. EKO EKAINA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

Euskara, Euskaldunon Hizkuntza

Historiaurretik gaurdaino Mendebal Pirinioetako bi aldeetan bizi izan den herriaren hizkuntza izan da euskara. Ez da kanpotik etorritako hizkuntza. Adituek diotenez, orain hiru mila urte bazen euskararik, zelakoa zen ezagutzen ez bada ere. Historian zehar, euskaldunek beste hainbat herrietako jendearekin izan zituzten harremanak (erromatarrek, bisigodoak...) eta honen ondorioz euskararen bertan geratu zaizkigu hizkuntza haien aztarnak, batzutan gaurko Euskal Herrian bertan, eta bestetan, orain hemendik urrun dauden orduko euskal lurraldeetan (Akitanian, Pirineotan...).

Mendeak zehar, euskaldungoaren lurraldeak aldatuz joan dira, eta gaur eguneko Euskal Herria ezezik, beste lurralde askoz zabalago bat: betetzen zuten Aintzinateko eta Erdi Aroko gizarte euskaldunek.

Lurralde haietan oraindik ere bizirik dagoen toponimia (tokien izenak) euskalduna da historia haren lekukorik onena. Horrela gertatu da Araba edo Nafarroako hegoaldeetan, baina baita Akitanian, Pirineoetan, Errioxan eta Burgosen ere.

Euskararen lurraldetasun mugak eta funtzio sozialak aldatuz joan dira historian zehar: botere politikoaren aldaketek, beste herrien eragin kulturelek Euskarari lurraldeak lapurtu dizkiote ohitura linguistikoak aldaeraziz:


- K.a. 1. milakadan: Hizkuntza Indoeuropearrek (Germaniarrak, suediera,

ingelesa....) euskarekin egin zuten topo lehenengo.

- 800 urte geroago: Erromatarrek agertu ziren bere latinarekin euskararen lehiakide izanik.

- Geroxeago: Hizkuntz Erromanikoak agertu ziren (gaztelera, okzitaniera,...) euskararen mugakide izanik.

Denborarekin, mugakide ziren hizkuntzek gizartean, erakundeetan, eta kulturaren nagu-



**Euskal herriaren
gu girade nausi
baina besteek dutie
bazterrak nahasi
Behar uken dugu
borrokatzen hasi
etsaien zanpatzia
ez zaiku itsusi**

Casenave

Bakioko Euskera-egoera ikuspuntu desberdinetatik

Inkesta hau egiteko lau galdera luzatu diegu gure herriko zenbait pertsonei. Hona hemen galderak, eta bakoitzaren erantzunak:

- 1.-Zure bizitzan eta lanean euskera asko ala gutxi erabiltzen duzu?
- 2.-Zu,zeu zauden lekutik edo lanetik,nola ikusten duzu Bakion euskeraren egoera?
- 3.-Zer egin beharko litzateke zure ustez Bakio gehiago euskalduntzeko?
- 4.-Administrazioak,gure kasuan Udaletxeak,nahikoa egiten duela uste duzu euskera

**Etor Duandikoetxea
Gaztea**

1- Bizitzan orokorki begiratuta oso gutxi, baina lanaren aldetik, nire ikasketak D ereduan egiten ditudanez nahiko egiten dut.

2- Bakion euskeraren egoera helduen mundura ikusten dut mugatuta nahiz

eta batzuetan jende gaztetxoak ere apur bat egin du. Herri bat izank euskera gutxi entzuten da.

3- Denok kontzientziatzea herriaren ezaugarri bat dala, euskaldunok euskeraz egitea eta heziketa aldetik gurasoek umearen aurrean erderaz ez egitea behintzat euskeraz dakien lagun bategaz badagoz.

4- Nere ustez udaletxeak ezer gutxi egin dezake, euskeraren arazoa herriko kideen gauza da, behar bada funtzionarioei euskeraz egitea behartzea, kartelak euskaraz besterik ez jartzea, kultura ladetik adibidez hilero euskaraz egiten den antzerki bat edo zeozer ekartzea, euskal giroa sortzeko.

Bakioko Udalbatzarra

1- Guk, geure artean, euskaraz egiten dogu lana, baina beti dagolez euskeraz ez dakien batan bat, ba, erdera apur bat ere egiten dogu.

2- Edadekoen artean, euskara polito ondo egiten da, baina gazteen artean gitxi erabiltzen da.

3- Jendea kontzientziatu behar da, eta euskeraz dakiena euskerea erabili behar dau bere etxean eta kalean.

4- Inoiz ere ez da nahikoa, beti gin lei gehiago.

**Inma Velasko
Eskolako irakasle bat**

1- Lanean bai egiten dut, baina bizitzan gure ingurua hain erderatua dagoenez erdera egiten dut.

2- Nahiz eta udako arazoa zein den jakin, herri txikia eta baserritarren girokoa izateko, ni mugitzen naizen inguruetatik behintzat ez da euskera askorik egiten.

3- Lehenengo gugandik hasi behar gara. geu kontzientziatu behar gara gure hizkuntzak duen garrantziaz. Orduan bai errez egingo genukeela.

4- Gogoia baduela ematen du Euskera Batzordeak proposatzen dituen ekintzen arabera. Orain, beraien helburuak betetzen diren hala ez, jenteak Euskararekiko duen jarreran ikusi beharko lirateke.



*Bakioko Euskera-egoera ikuspuntu desberdinetatik***Patxi Markaida
Eskolako guraso bat**

1- Nire bizitzan asko egiten dut baina lanean ez nahi dudana beste.

2- Ez dago oso ondo eta nire ustez, hau hobetu daiteke.

3- Eguneroko bizitzan eta elkarren artean euskaraz egin.

4- Bai egiten du, baina gehiago egin lezake.

**Kepa Crucelegui
Eskolako ikasle bat**

1- Nire lana ikasketak dira eta dena euskeraz ematen dugunez euskera asko erabiltzen dut. Bizitzan gutxiago gizarte erdaldun batetan bizi garelako.

2- Bakion euskera ez dago oso ondo. Udan ez dago jende asko euskeraz dakkienik eta neguan dakienak ez du egiten.

3- Oso zaila da hori lortzea bakarrik jendearen gogoia edo nahia beharko litzateke. Horrekin erdia baino gehiago eginda egongo zen.

4- Euskararen jaia adibidez, oso ondo dago antolatuta eta Txirritxola aldizkari

**Jonjo Agirre
AEKko irakaslea**

1- Normalean euskara erabiltzen dut.

2- Nahiko txarto. Izatez herri euskalduna izanik oso euskera gitxi entzuten da kalean eta gazteen artean oraindino urriagoa da erabilpena.

3- Uste dut Bakion badagoela Euskaraz Bizitzeko aukera, beraz ardura bakoitzarena da batez ere. Euskara presti-

**Pilar Garces de los Fayos
Ikasle heldua**

1- Gutxi erabiltzen dut

2- Herrain eguneroko harremanetan (adibidez erosketetan, edozein elkarriketan...) zaila egiten zaigu elkarrik ulertzea. baliteke euskalki desberdinak erabiltzeagaitik.

3- Lehenik eta behin kontzientzia hartu behar, euskaldunberrien aldetik nahiz euskladunzaharren aldetik ere.

4- Nik uste dut, Udaletxetik aparte, gure eskuetan ere daukagula. Baina gero eta ekintza gehiago euskararen alde izatea hobe.

giatu beharra dago eta hori jende helduaren esku dago neurri handi batetan. Euskararen etorkizuna ez da soilik umeen ardura, hori esatea erosokeri hutsa da. Alfabetatzea, euskal prentsa irakurtzea, euskeraz berba egitea nonon eta nonoiz, euskalduna izatea eta harro egon, hortxe dago gakoa.

4- Udaletxea gizartearen ispilu bat da eta honen antzera, egun posibilitatea nagusi da bertan.

Bakioko Euskera-egoera**Josune Ugalde
Etxeko emakume bat**

1- Ez asko, batzuetan euskera ez dakien pertsonengaitik eta beste batzuetan batua ez jakiteagaitik.

2- Nahiko txarto ikusten dut, zeren eta jendeak batuaz egiten du eta guk, batua ez dakigunok, akonplejatuta sentitzen gara, bizkaieraz hitzegiterakoan.

3- Euskeraz gehiago hitzegin beharko genuke nahiz batuaz nahiz bizkaieraz.

4- Nire ustez nahiz Udaletxeak nahiz herriko jendeak gehiago bultzatu beharko genuke euskera.

**Mari asun Garay
Dendaria**

Nire famili inguruan aha-
legintzen naiz euskeraz
egiten baina lanean beti
gutxiago.

2- Bakion oso euskera
gitxi egiten da, batez ere
gazteen artean.

3- Denok mentalizatu
behar dugu gure herriaren
hizkuntza dugula.
Gurasoak, irakasleak, gaz-
teak eta abar.

4- Ez, ez dut uste udalet-
xeak nahikoa egiten due-
nik.

**Silverio Goikoetxea
Adineko pertsona bat**

1- Asko, bai etxean eta
bai «Gure Etxean», jubila-
tuen lokalean.

2- Tabernatan eta entzu-
ten da baina gazteak gitxi
egiten dabe. Gure sasoiak
asko be egehiago egiten
zan.

3- Gazteak, heuren arte-
an gehiago egitea lortu
behar da.

4- Ez nau lar jakitur
Udaletxean zer egiten
daben. Dana dala han
dagozan beharginek
behintzat jakin beharko
leukie.

**Niri Euskaraz**

Aurten, Bakioko Esko-
lan «Urkizta Ikas-tetxe-
an», bigarren etapako
ikasle eta irakasleak
euskara bultzatzeko
kanpaina bat antolatu
dute, Honen helburua
eskolan euskara gehia-
go hitz egitea da eta hau
lortzeko jolas antzeko
batzuk proposatu dira:

Txaparena: Txapa
duen pertsonak edonori
entzuten dionean erde-
ra, beste horri ematen
dio txapa, eta aldi bere-
an, klaseko izen guztiak
ipinitako mural batean
marratxo bat jarri.
Hilabete amaitzean,
marra gutxien duen per-
sonari, hau da, erdera
gutxien egindako perso-
nari saria ematen zaio.

Beste joko bat erabilt-
zen dena hau da:

«Bai Egunon» izene-
ko jolasa. Pertsona
bakoitzak kuadernotxo
bat izanez, norbaitek
erderaz egiten duenean,
eta edonork entzuten
dionean, «Bai Egunon»
esaten dio. «Bai
Egunon»-a jasotako
pertsonak bere kuader-
notxoan apuntatu behar
du. Eta azkenik, txapa-
rekin bezala, «Bai
Egunon» gutxien izan-
dako pertsonari saria
ematen zaio.

Ea horrela behintzat,
euskera gehiago egitea
lortzen dugun.

baina metodorik gabe
ere gure borondatze
egin beharko genuke.

Eskolako bigarren

Euskara Korrika!

Etorri eta joan, aurrekoan lez Korrika zitzu bizian eta euri-pean igaro jakun Bakiotik, Iruñatik Bilbora Euskal Herri osoan zehar gogoz zabaldu dau Korrikak bere mezu garbia: Maite dugu gure herria Euskaraz!

Arnas-estuka gehient-suak, erraz gutxi batzuk, ilusioz beterik eta blai-blai guztiak, Euskarari beste bultzada bat enoten ahalegindu gara, ez daitela bada korrikagaz batera joan, iraun beza eguneroko beharrean, etxean, lagun-artean... euskaraz lotu barik.

Gora eta gora doan korrika honetan instituzio gehienek hartu dabe parte: eskerrik asko beraz Mungialdeko udaletxe



gehienei, hau da: Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungiari.

Mila esker bebai Bakio nahiz Mungialdeko herrietatik parte hartu nahiz lagundu dozuen talde kultural,

kirol talde, alderdi, taberna, denda, pertsona soil... eta barri.


Zorionak denoi eta hurrengo korrikara arte, euskaraz bizi!

URIBE-BUTROEKO AEK

Bakiotarrok Herri Urratsera eta Ibilaldira

Aurten ere, beste urte batzuetan bezala, Maiatzan izan ditugu euskararen aldeko egun berezi bi, Herri Urrats eta Ibilaldiari buruz hitz egiten ari gara.

Maiatzaren 9an Herri Urrats X. edizioa ospatu zen Senperen. bertara Euskal Herriko herrialde guztietatik joan zen jendea. Gutxi gora behera 100.000 jende hartu zuten parte Ipar Euskal Herriko ikastolen festan. Bakiotarrok ere bertan izan ginen, eta gainera, aurten inoiz baino jende gehiago hurbildu ginen Senperera, ia ia autobus bi bete genituen. Goiz goizetik hurbildu ginen eguzki ederraren laguntzarekin, eta bertan, kantariak, bertsolariak, dantzak, herri kirolak, erral-



doiak eta beste hainbat animazioarekin egoteko modua euki genduan.

Beste aldetik, Maiatzaren 23an, Ondarrun Ibilaldia ospatu zen Bizkaiko ikastolen alde. GOiz osoan etengabe aritu zen jendea ibilbidera sartzen 80.000 lagunetik gorako kopurua osatu arte.

«Adi ibil hadi» izan zen aurtengo Ibilaldirako aukeratu zuten lema. Ondarrun ere txarangak eta fanfarreak ez ziren falta, giroa berotzeko.

Jai hauetan jendearen aurpegiak ikusita, bazirudien ondo pasatzen ari zirela, horregaitik ea datorren urtean ere aurtengoan bezala animatzen garen ekintza hauetara joaten.

Musika

Musika eskola

Aurreko urteetan lez aurtengo ikasurtean ere leku bat egin deusagu musikari.

Une honetan azken pausoetan aurkitzen gara. Musika lege berrairan arabera, lau urterik hasi dira umeak eta zazpirekin aukeratzen dabe musika tresna. Ikasturte honetan 46 ikasle dabilz, hasera I etall eta Musika Hizkuntza I eta IIan eta Pianu, akordeoi, trikitrikiza, gitarra eta txistua tresnetan.

Datoren ekainaren 18an ikasleen entzunaldia izango dugu octogonean eta hori gertztzen dabilz irakasleekin



batera. Ondoren askaria izango dogu.

Aitatutako musika tresna bakoitza entzuteko erea izango dozue eta datorren ikasturtean zuek ere tarteko izateko bultzakadatxu bat hartu.

Guztiok zagoze konbidatuta eta musika tresnaren bat joten badozue ekarri eta gurekin batera jotera ere bai.

LAPURTARRAK Abesbatza

Bakiora dator

Boskarren zenbakian esan geuntsuena ahaztu bajatzue, gogora dakartsuegu Uztaritzeko «Lapurarrak» abesbatzak egingo dauskun bisitaldia:

Ekainak 19, zapatua

Ileuneko 8, 15retan

Parrokian

Anima zaiteze eta zatoze entzutera.

Eta Iparraldeko euskaldunak Bakiora badatorkizguz be, Bakiokoak oraingoan asan goaz: Zamorako ingurueta hurbilduko da «Bakioko Abesbatza», Ekainak 26 eta 27 asteburuan.

Eritzia

Euskal Herriaren sententzia, ejerzitoari desobedientzia

Insumisioa, kontzientzi eragozpena, ejerzitoari desobedientzia zibilaren adierazpena da, ejerzitoaren printzipioer (guda, itsukeria, gizarte kontrola, matxismoa, heriotza...) uko egiteko tresna. Funtsezko eskubide honek lagun ugari bultzatu du ejerzitoari muzin egitera Euskal Herrian. Erantzun sendo honi aurka egiteko Espainiako PSOEn gobernua ordezko serbitzu soziala antolatu zuen, objetore eta intsumisoak zigortzeko; eta areago, lanpostuen galera eragiten duen sasi-serbitzua. Koakzio hutsa den PSS delakoaren aurka, partidu, sindikatu, sozial mogimendu askok egin dabe bat.

Estatu espainiolak aldiz, berean darrai, eta jadanik Nafarroan hasiak ziren intsumisoen aurkako epaiketak, Bizkaira zabaldu dira. Epaiketarik ez!

Ejerzitoak apurtu!

Bakioko Intsumiso bat

Euskara Kalean, Kanpaina Berria

Ibili gabiltz, ibiltzen gara
beti ekin eta ekin
gure hizkuntza zabaldu asmoz
hamaika ta bi ahalegin
euskera dugu mintzaria eta
hori guk ukatu ezin
udan zein negu, ta udaberrian
beti euskaraz hitzegin

Laister edo oraingoz kalean ikusiak dituzue honelako oinetsiak:



JARRAI BERAIEI ETA BIDE ONERA
AILEGATUKO ZARETE.



Eskolako 8^o mailako ikasleek etapa berria hasiko dute

Eskolako kurtso amaieran

- Kurtsoko lehenengo ekintza Olentzero jaia izan zen. Azkenengo urteko modura Beniñoren laguntza izan genuen. Jende askok parte hartu zuen eta amaitzeko ardoa eta gaztainak izan genituen Juanek erreta.

- Ihauterietan, umek danborrada egin zuten Bakioko kaleetatik. gero txokolate bero beroa bizkotxoekin egon zen eskolako amatxoak prestatuta.

- Eskolako neskeengan kirola egiteko asmoa zegoen, horrexegaitik saski-baloiko kanastak erosteko beharra ikusten genuen.

Aurtengo torneoan ez dira hain ondo ibili baina ... ez desanimatu neskak! Datorren urtean egingo duzue hobeto.

Azkenean kanastak udaletxeak ordaindu ditu beste ekintza batzuetan erabil ahal izateko.

- Udaberrian hitzaldi batzuk izan ditugu oso interesgarriak, nahiz eta jende askorik ez etorri. Hitzaldi hauek Mungiko Drogomenpekotasun Prebentziorako Serbitzuaren laguntzarekin antolatu ditugu. Gaiak hauek izan dira:

- 1- Frakaso eskolarra
- 2- SIDA
- 3- Sexualitatea.

Jendeari interesgarriak iruditu zaizkiolez datorren kurtsoan jarraitzea pentsatu dugu.

- Artikulu hau zabaldu orduko 8.mailako ikasleen «agurra» ospatuta eukiko dugu.

- San Juan Bezperako sua ere hor daukagu bere sardinadarekin, Moises eta beste guraso batzuen laguntzarekin.

- Amaitzeko kurtso bukaerako eskurzinoa.

ONDO PASA ETA DATORREN KURTSORARTE!.

Agenda

Irakurtzeko:

Ehun Metro:

Tamalez edo, nobela «zahar» honek ez du gaurkotasunik galdu, eta euskal genero poliziakoan mailarik gorenekoa dela esan beharra dago. Irakurteraza, *bizia ... Ramon Saizarbitoriaren* nobela honek 8. edizioa bete du. Metroko hamar pezeta nahikoak dira nobela bikain hau eskuratzeko. Onegin.

Mari Anbotoren Madarikapena:

Gaztetxoek atseginez eta edonork jakinminik baleuka irakurtzeko aproposa. Ipuin eder honek Euskal Mitologiaren pertsonaiak hurbiltzen deuskuz. Ohizko legez Anboto bildumakoan maketazio atseginez eta erabilpen didaktikoa bilatuz. Eta etxeko txikerrei ere irakurtzen itzi gero!

Ikusteko

Telebistaz: Astelehenetako «*Bi eta Bat*» eta «*Txoko Latex*» atsegingarriak aparte utzita, ba dago ETBn beste saio interesgarrikerik ere; domeketan hitzetik-Hortzera adibidez. Bertan bertso-saio ezberdinetako momenturik mamitsuenak gozatzeko aukera daukazu, baita hainbat bertsolari ezagutzeko parada. Euskararik biziena dastatzeko aukera ez dezazula galdu.





Euskera Nagusi zenean

Egun batean, eskoletan euskararik irakasten ez zen garaietan, bi mutil koskor basora joan ziren eskolarako orduan. Eta non ikusten duten birigarró bat bide ertzean:

- Baietz harri bat bota eta txoria jo! - esan zion mutil batek besteari.

Esan eta egin, hartu zuen mutilak harria eta birigarroa jo zuen hego batean. Birigarroa iheska hasi zen baina ezin zuen hegan egin bere hego zaurituaz. Hala ere bi mutilek ezin zuten birigarro zauritua harrapatu. Pasa zuten txoriari segika ordu erdi bat edo eta mutil batek esan zion besteari:

- Berandu dugu! Ez gara eskolara garaiz iritsiko!

Korrika bizian joan ziren eskolara baina ordua pasata zegoenez, lanean ari ziren guztiak. Eta maisuak esan zien:

- ¿,Dónde habeis estado hasta estas horas?

Eta erdaraz ongi ez zekien mutiko batek:

- Txoria visto, harria tirado, hegoan dado, txoria escapado, denbora pasado.

Kiniela

Kiniela hau honela egiten da:

1 Senonimoak diren hitzentzat

2 Antonimoak diren hitzentzat

x Ezberdinak diren hitzentzat

1	1	x	2	Gizona- Emakumea
2	1	x	2	Ederra - Polita
3	1	x	2	Elefantea - Mahaia
4	1	x	2	Berria - Zaharra
5	1	x	2	Presondegia - Espetxea
6	1	x	2	Gaisotu - Eritu
7	1	x	2	Galerna - Ekaitza
8	1	x	2	Eguzkia - Zerua
9	1	x	2	Gaua - Eguna
10	1	x	2	Sorgina - Mendia
11	1	x	2	Soldadua - Gudari
12	1	x	2	Neska - Mutila
13	1	x	2	Soloa - Ortua
14	1	x	2	Gabonak - Aste Santua
15	1	x	2	Uda - Negua